

IRAKURMENA

3. testua

Elkarrizketa baten sarrera irakurriko duzu. Ondoren, elkarrizketaren galderak irakurriko dituzu, alde batetik, eta galderen erantzunak, beste alde batetik.

Egitekoa
Elkarrizketaren galdera bakoitza dagokion erantzunarekin lotu behar duzu, adibidean egiten den bezala. Erantzun bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

* Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Juan Mari Arzaki elkarrizketa

Elkarrizketaren sarrera:

Oso atsegina da Juan Mari Arzakekin berriketan aritzea. Gauza desberdin ugari hitz egin daiteke berarekin, eta luzez gainera. Nolanahi ere, sukaldaritzaz mintzatzea du gogokoan. Izan ere, donostiar honentzat, gastronomia ez da lanbide soil; hori baino gehiago da: "pasio bat da."

Elkarrizketaren galderak:

- 0- Nolakoak izan ziren zure hasierak? Noiz eta nola jakin zenuen sukaldari izango zirela?
- 1- Zein da sukaldari batek har dezakeen pozik handiena?
- 2- Zein da zure iritzia gastronomiaren mundializazioari dagokionez?
- 3- Zein da eguneroko sukaldaritza erakargarriago bihurtzeko sekretua?
- 4- Zein da gustuko duzun platera?
- 5- Gehiago gustatzen zaizu sukaldean aritzea jatea baino?
- 6- Ba al duzu sukaldetik kanpo praktika daitekeen zaletasunik?
- 7- Sukaldaria ez balitz, zertan arituko litzateke gaur egun Juan Mari Arzak?

3. testua

Elkarrizketaren erantzunak:

- a- Gehien gustatzen zaidan sukaldaritza euskalduna da. Nire ustez, munduko onena da, arte eta kontzeptu handikoa. Frantziako sukaldaritza ere oso artistikoa iruditzen zait, eta Txinako gastronomia perfektiora hurbiltzen dela...
- b- Ezingo nuke beste ezertan aritu. Bizitzari ez zaio gehiegi eskatu behar. Nik sukaldean aurkitu dut zoriontasuna. Gainera, nire alaba eta ostalaritzako ikasle gazteak lanean ikusita, esan dezaket gure sukaldaritzak bermatuta daukala etorkizuna.
- c- Egia esateko, orain bertan ez. Garai batean Espainiako eskubaloiko txapelduna izan nintzen, eta duela hogeita hamar edo berrogei urtetik golfean jokatzeko aritzen naiz. Dena den, ni gauza gutxiarekin dibertitzen naiz. Ez diot bizitzari gehiegi eskatzen.
- d- Denetarik dastatu dut, eta gauza asko gustatzen zaizkit: kabiarrak, foie-gras, globo arraina... Baina ikaragarri gustatzen zaidana da etxera itzultakoan arrautza frijitu pare bat ondo egindako pikillo piperrekin jatea. Hori zoragarria da.
- e- Ni etxe honetantxe jaio nintzen, jabetxea daukagun honetan bertan. 1897koa da. Txikitan hasi nintzen sukaldaritzarekin harremanetan, baina inoiz ez nuen pentsatu sukaldari izaten amaituko nuenik.
- f- Politeia, herri bakoitzak bere kultura eta nortasuna mantentzea da. Sukaldaritzan ez luke musikan gertatzen denak gertatu behar. Nire ustez, sukaldaritza mota bakoitza bere lekuan dastatu behar da.
- g- Dena dut gogoko: nik prestatutakoa jatea, besteentzat prestatzea, beste batzuek prestatutakoa jatea...
- h- Egin beharreko lanaz arduratzea. Ni sukaldearekin maiteminduta nago. Sukaldean aritzea plazer bat da niretzat, jolas bat bezalakoa. Sukaldariei beti esaten diet konturatu behar dutela prestatzen ari diren janariarekin jendea zoriontsu egingo dutela. Eta, horretarako, funtsezkoa da maitasunez egitea.
- i- Bizirik dagoela sentitzea, egiten duenak bizitasuna ematen diola ikustea. Eta, aldi berean, plazerra eskaintzea.

Teresa Sala.
Euskonews, 214.zk., 2003/06/13-20. Moldatua.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

0.- E	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----